

3.2.1.1.- Gastuen bilakaera obra berrian eginiko inbertsioetan, bizikleta bideen mantentzean egindako gastua, eta bizikleta garraiobide modura bultzatzeko eginiko sustapenetan.

Hirian bizikletaren erabilera bultzatzeko eginiko udal inbertsioak. Iturria:  
Mugikortasun Zuzendaritza

Urtea	Bizikleta bideen exekuzioa €	Bizikleta bideak mantentzea €	Aparkalekuak €	Sustapena €
2002	1.200.000		30.000	
2003	20.000		30.000	
2004	300.000		30.000	
2005	1.100.000		54.336	
2006	1.223.000		58.600	85.500
2007	532.000		51.631	71.162
2008	113.700	48.320	34.528	43.903
2009	3.533.068	21.000	6.300	13.420
2010	1.725.573		74.560	23.345
2011	3.489.797	42.000	31.500	15.457
2012	1.206.193		5.600	2.000
2013	830.000 *	1.500	20.000	1.000 **
2014	265.000	10.000	20.734	7.500**
2015	920.000	10.000	18.513	5.000

\* Inbertsio honetan, Peña y Goñi kalea oinezkoentzat bihurtzeko eginiko lanen guztizkoa sartzen da.



---

\*\* Inbertsio honetatik kanpo utzi dira Energiaren Euskal Erakundeak diruz lagundutako txirrindularien prestakuntza ikastaroak.

2015ean, guztira, **953. 513 €**-ko inbertsioa egin zen. 2015. urteari dagokion batez besteko gastua **5,12 €**-koa izan zen, biztanleko, iazko 1,36 euroak baina nabarmen gehiago, eta 2013ko 4,58 €-koa baino pixka bat gehiago. Bizikleta Bultzatzeko Planak bere garaian urtean 4,5 €-ko gastua ezarri zuen urteko eta biztanleko, bizikletaren erabilera sustatzeko gutxieneko inbertsio gisa, eta aurten gainditu da.

2015eko inbertsio nagusia bizikletan segurtasunez zirkulatzeko espazio berrietara bideratu zen, bide batzuen trafikoa arintzeko irizpidea jarraituz, eta hobekuntza ekimenen eremuan. Hala, egin diren mota askotariko bide nagusiek bizikleten zirkulazioa errazten dute Loiola eta Martutene artean, edo Egiako auzoan.

Sarea mantentzeko 10.000 € erabili ziren, aurreko urtean bezalaxe; hirian aparkalekuak jartzeko partida 2.221 €-tan txikitu zen, eta oso kopuru mugatua utzi da sustapenerako, 5.000 €, joan den urtean baino heren bat gutxiago.